



RENCONTRES PHOTOGRAPHIQUES INPAKT

photos et rencontres
argazkiak eta topaketak

du 17 juillet au 28 août
uztailak 17 – agorrilak 28

Du 17 juillet au 28 août 2026, la ville d'Urrugne organisera la troisième édition des rencontres photographiques INPAKT avec toujours pour thème: l'impact environnemental et sociétal de l'humain sur son milieu.

Les photographes d'INPAKT sont connus pour leur engagement et leur regard singulier sur le monde. Les expositions cheminent, entre l'espace public et la salle d'expositions Posta, provoquant une résonance entre le thème et les œuvres.

Pour cette troisième édition, la ville accueillera deux photographes : Axelle de Russé et William Daniels.

2026ko uztailaren 17tik agorrilaren 28ra, Urruñako herriak INPAKT argazki topaketen hirugarren edizioa antolatzen du, ohiko gai bera argitan ezarriz: gizakiak bere ingurumenean eta gizartean duen eragina.

INPAKTen parte hartzen duten argazkilariak ezagunak dira munduaren gainean duten konpromisoagatik eta begirada bereziagatik. Erakusketak eremu publikoaren eta Posta gelaren artean dira, gaiaren eta obren arteko oihartzuna eraginez.

Hirugarren edizio honetarako, bi argazkilarieri harrera egiten die: Axelle de Russé eta William Daniels.

LES PHOTOGRAPHES

ARGAZKILARIAK

Axelle de Russé

BIOGRAPHIE

Le travail de la photographe Axelle de Russé s'inscrit dans la tradition du récit d'exploration. La difficulté d'accès à des lieux lointains et vulnérables ainsi que les choix visuels et narratifs qu'elle s'impose confèrent une singularité à son travail. Sa démarche allie récit documentaire et recherche artistique afin de créer du désir et susciter l'attachement du public sans jamais sacrifier la réalité à l'esthétique. « À travers mes images, je cherche moins à montrer l'agonie de ces espaces qu'à en révéler la beauté, la poésie et la puissance. Je souhaite déplacer le regard : susciter l'attachement plutôt que l'effroi, car l'on protège bien mieux ce que l'on aime ».

Depuis 2016, elle mène un travail sur le réchauffement climatique dans les villes situées aux extrêmes Nord et Sud de la planète. Longyearbyen en Arctique norvégien, et Puerto Williams en Patagonie chilienne. À travers cet essai photographique au long cours, elle s'éloigne des représentations classiques et immaculées des pôles, en explorant une proximité chromatique entre ces territoires opposés, notamment grâce à l'usage de l'infrarouge.

Axelle de Russé argazkilariaren lana esplorazio-kontakizunen tradizioan kokatzen da. Urruneko eta zaurgarriak diren lekuetara iristeko zailtasunak, eta bere buruari ezartzen dizkion hautu bisual eta narratiboek, bere lana berezi egiten dute.

Dokumentazioaren eta sorkuntza artistikoaren arteko oreka bilatzen du, ikuslearengan atxikimendua eta interesa pizteko, estetika inoiz errealtatearen kaltetan ezarri gabe.

« Nere irudien bidez, ez dut espazio hauen agonia erakutsi nahi, baizik eta haien edertasuna, poesia eta indarra agerrarazi. Begirada aldatu nahi dut: beldurra baino maitasuna sortzea, maite duguna askoz hobeki babesten baitugu ».

2016az geroztik, planetako ipar eta hego muturretako hirietan klima-aldaketak dituen ondorioak ikertzen ari da: Norvegiako Artikoan dagoen Longyearbyen eta Txileko Patagoniako Puerto Williams. Epe luzeko argazki-entsegu honetan, poloen irudi zuri eta garbien irudikapen klasikoetatik urrundu da, eta bi lurralde kontrajarri horien arteko antzekotasun kromatikoa aztertzen du, bereziki infragorriaren erabilaren bidez.



©Pamela_Tramanil/ Axelle de Russé

LES PHOTOGRAPHES

ARGAZKILARIAK

Axelle de Russé

UN TRAVAIL PRIMÉ

Son travail est régulièrement présenté dans des festivals et des galeries, tels que Visa pour l'image, Paris Photo ou Artcurial.

En 2007, elle reçoit le prix Canon de la femme photojournaliste pour son reportage sur le retour des concubines en Chine. En 2014, avec le soutien du Centre national des arts plastiques (CNAp), elle documente le quotidien de femmes victimes de violences sexuelles au sein de l'armée française, puis s'intéresse à la réinsertion des femmes après la prison en France. Ce projet est récompensé en 2019 par le prix « Pierre et Alexandra Boulat » et exposé l'année suivante à Visa pour l'image. Attachée aux collaborations, elle a également parcouru la France pendant trois ans avec le photographe Thomas Morel-Fort pour un projet à la chambre photographique consacré au monde de la culture, avec le soutien de la Bibliothèque nationale de France (BnF). Ce corpus d'images fait partie d'une grande commande photographique, « Radioscopie de la France : regards sur un pays traversé par la crise sanitaire », mise en place par le ministère de la Culture et confiée à la Bibliothèque nationale de France.

Bere lana maiz erakusten da nazioarteko jaialdi eta galerietan, hala nola Visa pour l'Image, Paris Photo edo Artcurialen.

2007an, Canon Emazte Argazki Kazetariaren Saria jaso zuen Txinan ohaideen itzulerari buruz eginiko erreportajeagatik.

2014an, CNApen laguntzarekin, Frantziako armadan sexu-indarkeria pairatu zuten emazteen egunerokoa dokumentatu zuen; ondoren, espetxetik atera emazteen gizarteratzea landu zuen. Proiektu horrek 2019an « Pierre eta Alexandra Boulat » Saria irabazi zuen, eta ondoko urtean Visa pour l'Image festibalean erakutsi zuten.

Elkarlanari lotua, hiru urtez Frantzia zeharkatu zuen Thomas Morel-Fort argazkilariarekin batera, kultura munduari buruzko kamera handiko proiektu batean, Frantziako Liburutegi Nazionalaren (BnF) babesarekin.

Irudi multzo hori « Radioscopie de la France : regards sur un pays traversé par la crise sanitaire » izeneko argazki-eskaera nazionalaren parte da; ekimen hori Frantziako Kultura Ministerioak abiatu zuen eta Frantziako Liburutegi Nazionalari eman zion ardura.



©Pamela_Tramanil/ Axelle de Russé

LES PHOTOGRAPHES

ARGAZKILARIAK

Axelle de Russé / *Attractions polaires*

« Cet essai photographique sur la vie quotidienne aux pôles était au départ un projet documentaire sur les effets du réchauffement climatique dans les villes situées aux extrêmes. Il est devenu un voyage initiatique et personnel, fait d'accidents, d'expérimentations et de rencontres. Il est devenu une déclaration d'amour à ces territoires et mon passage à l'âge adulte photographique. Je ne souhaite plus montrer dans mes images l'agonie de notre monde, mais sa beauté. Seule celle-ci peut nous pousser à protéger ce qui nous entoure ».

« Hasieran, poloetako eguneroko bizitzari buruzko argazki-entsegu hau muturreko lurraldeetako hirietan klima-alaketak dituen ondorioei buruzko dokumentazio proiektu bat zen. Baina pixkanaka bidaia pertsonala eta inizatikoa bilakatu da, ustekabez, esperimentazioz eta topaketez osatua. Lurralde horiei eginiko maitasun adierazpen bat bihurtu da, eta argazkilaritzaren bidean heldutasunari buruz egin ditudan urratsen adierazlea ere bai. Gaur egun, ez dut gehiago gure munduaren agonia erakutsi nahi; haren edertasuna baizik. Edertasunak bakarrik bultzatzen gaitu hori babestera ».



©Axelle de Russé/ *Attractions polaires*

LES PHOTOGRAPHES

ARGAZKILARIAK

William Daniels

BIOGRAPHIE

William Daniels est un photographe français qui mène des projets documentaires, avec un intérêt particulier pour la quête d'identité des individus et les territoires marqués par une instabilité chronique, tels la Centrafrique, le Kirghizistan ou la frontière Bangladesh-Myanmar.

Son travail s'articule autour de thématiques sociales ou humanitaires, traitant des enjeux variés : sanitaires, sociaux, sécuritaires, économiques, politiques, etc.

Parallèlement à ses projets personnels, William Daniels travaille comme photojournaliste pour le magazine National Geographic, la National Geographic Society et plusieurs médias internationaux, dont Le Monde.

Il a publié cinq livres photographiques entre 2008 et 2019.

William Daniels argazkilari frantsesa da, eta bereziki pertsonen nortasun-bilaketari eta ezegonkortasun kronikoa bizi duten lurraldeei dagozkion dokumentazio-proiektuak garatzen ditu, hala nola, Afrika Erdiko Errepublikan, Kirgizistanen edo Bangladesh eta Myanmar arteko mugan.

Bere lana gai sozial eta humanitarioetan oinarritzen da, eta askotariko erronkak jorratzen ditu: osasuna, gizartea, segurtasuna, ekonomia, politika eta beste hainbat arlo.

Bere proiektu pertsonalez gain, William Daniels National Geographic aldizkarirako argazki-kazetari gisa ere jarduten du, National Geographic Society erakunderako eta nazioarteko hainbat hedabiderentzat, tartean Le Monde egunkariarentzat.

2008 eta 2019 artean bost argazki-liburu argitaratu ditu.



©Martin Colombet / William Daniels

LES PHOTOGRAPHES ARGAZKILARIAK

William Daniels UN TRAVAIL PRIMÉ

Ses reportages ont été récompensés par de nombreuses distinctions internationales, parmi lesquelles deux World Press Photo Awards (en 2008 pour son sujet sur le paludisme et 2014 pour son travail en République centrafricaine). En 2014, le festival Visa pour l'Image de Perpignan lui a décerné le Visa d'Or Humanitaire du CICR, récompensant son reportage sur l'accès aux soins en République centrafricaine. Cette même année, deux bourses lui ont été attribuées : la Bourse Tim Hetherington, par la World Press Photo Foundation, pour soutenir des projets documentaires ambitieux, ainsi que Getty Grant for Editorial Photography, destinée à encourager l'excellence en photojournalisme.

On peut également mentionner d'autres distinctions importantes, comme le Prix du Jeune Reporter François Chalais (2007), plusieurs bourses du Centre national des arts plastiques (CNAP), ainsi que des bourses de la National Geographic Society obtenus entre 2018 et 2021 pour soutenir ses projets documentaires.

William Danielsen erreportaiek nazioarteko sari eta aitortza ugari jaso dituzte. Horien artean World Press Photoren bi sari jaso ditu: lehena 2008an, malariari buruzko erreportaia batentzat, eta bigarrena, 2014an, Afrika Erdiko Errepublikari buruzko lan batentzat.

2014an ere, Perpignaneko Visa pour l'Image festibalak CICRren Visa d'Or Humanitaire saria eman zion, Afrika Erdiko Errepublikan osasun-arretarako sarbideari buruz egindako erreportaiarentzat.

Urte berean, bi beka jaso zituen: Tim Hetherington Beka, World Press Photo Foundation erakundeak proiektu ausartak laguntzeko eskainia; eta Getty Grant for Editorial Photography, argazki-kazetaritza sustatzeko sortua.

Horrez gain, beste hainbat aitortza garrantzitsu ere jaso ditu, besteak beste François Chalais Gazte Kazetariaren Saria (2007), Centre national des arts plastiques (CNAP) erakundearen hainbat beka, eta National Geographic Society erakundeak 2018 eta 2021 bitartean, bere proiektuak garatzen laguntzeko emandako bekak.



©Martin Colombet / William Daniels

LES PHOTOGRAPHES

ARGAZKILARIAK

William Daniels / *Stateless*

Que se passe-t-il quand l'identité d'une personne est réfutée au point de la priver de toute existence ? Elle devient apatride (stateless). Il y aurait 10 millions de personnes apatrides ou à risque d'apatridie à travers le monde. Le droit international définit ces citoyens de nulle part comme des personnes « qu'aucun État ne considère comme [ses] ressortissant[s] par application de sa législation ». Si leurs profils varient, les populations concernées partagent une tragédie commune. Sans existence légale, elles n'ont pas – ou peu – accès aux droits fondamentaux, comme l'éducation, la santé, le droit de vote, ni aux services bancaires ou à l'économie formelle. Des exclusions en cascade qui repoussent encore davantage ces individus fragilisés dans les marges et les rendent particulièrement vulnérables à diverses formes d'exploitation.

Zer gertatzen da pertsona baten nortasuna ezeztatua denean, haren izatea kendu arte? Nortasungabe bilakatzen da (stateless). 10 milioi pertsona nortasungabe edo nortasungabe izateko arriskuan dira mundu osoan zehar. Nazioarteko zuzenbideak horrela definitzen ditu inongo herritartasun horiek « Estatu batek ere, bere legegintza aplikatuz, herritartzat hartzen ez dituen pertsonak » bezala. Haien profilak desberdinak izan arren, herritar guztiek tragedia berdina partekatzen dute. Legezko existentziarik gabe, ez dute – edo guti – oinarizko eskubideak eskuratzeko aukerarik, hezkuntza, osasuna, bozkatzeko eskubidea, banku-zerbitzuak edo ekonomia bezala. Baztertze horiek pertsona ahulak gizartearen bazterretara are gehiago pusatzen dituzte, eta esplotazio mota desberdinen aitzinean bereziki hauskorak uzten dituzte.



©William Daniels/ *Stateless*